



Lezoko Unibertsitateko Udala

2024ID510002

LEZOKO UDALA

GIZARTE ZERBITZUAK **SAILA**

**2024ko GIZARTE ELKARTEEN
DIRULAGUNTZA IREKIAREN
DEIALDIA**



Lezoko Unibertsitateko Udala

LEZOKO UDALAREN 2024. URTERAKO DIRULAGUNTZA IREKIEN DEIALDIA

ZIOEN AZALPENA

Lezoko Udalak Gizarte Zerbitzuak arloan dirulaguntzak ematea jasotzen du 2024ko udal aurrekontuetan. Laguntza horien bidez, udal interesekotzat jotzen diren alor eta diziplinetan hainbat elkartek eta entitatek egiten dituzten askotariko ekintzak edo jarduerak babestu nahi dira.

Eman beharreko dirulaguntzen bidez, Udalak zenbait alorretan esku hartzen lagundu nahi die elkarte eta entitate horiei.

Horregatik guztiagatik, Lezoko Udalak, bere aurrekontu baliabideen esparruan, lehia askeko deialdi irekia egiten du, Gizarte Zerbitzuak arloan ohiko lehiaketara bideratutako jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko.

Deialdi honen oinarri orokorrak udalak dirulaguntzak emateko egingo dituen deialdi irekietarako agiri bakar batean bateratutakoak dira, dirulaguntzak hartuko dituzten elkarte, entitate eta norbanakoei araudi erreferentzia bakarra emateko eta, aldi berean, espedienteak izapidetzean egin beharreko kudeaketa administratiboak samurtzeko.

Deialdi honetan hauek ezartzen dira:

1. Oinarri orokorrak, dirulaguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzan ezarritakoaren (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2018/11/06), 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2024/02/28) eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta haren araudia 887/2006 errege dekretuan ezarritakoaren arabera. Oinarri horietan zehazten dira, hain zuzen, deialdi ireki guztienak diren xedapen orokorrak, eskabidea egiteko jarraitu beharreko prozedura, onuradunak, eskatzaileei eskatzen zaizkien baldintzak, aurkezteko epeak, eman beharreko zenbatekoa, dirulaguntza zertarako den justifikatzea, dirulaguntzak ordaintzea eta abar.
2. Oinarri espezifikoak, Gizarte Zerbitzuak sailak bere eskumeneko alorrean ezartzen dituenak dira; bertan, besteak beste, ohiko lehiaketara bideratutako Gizarte Zerbitzuetako jarduera garatzeko dirulaguntza baloratzeko irizpideak eta aurkeztu beharreko dokumentazio osagarria zehazten dira.



Lezoko Unibertsitateko Udala

OINARRI OROKORRAK

I. XEDEA

1. artikulua. Xedea.

Oinarri hauek 2024. urterako norgehiagoka erregimenean dirulaguntzak emateko prozedura orokorra arautzen dute; horren kudeaketa Lezoko Udalarari dagokio.

2.-artikulua. Onarpena eta argitalpena.

Deialdi hau 2024ko urriaren 28ko D24/1285 Alkate Dekretuz onartu da.

Oinarriak, oso-osorik argitaratuko dira Udalaren webgunean (<https://www.lezo.eus/eu/dirulaguntzak>), eta deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bitartez.

3. artikulua. Araubide juridikoa.

Dirulaguntza hauek emateko eta Udalaren eta onuradunen arteko harreman juridikoa zehazteko, oinarri hauek eta dirulaguntza ematean indarrean dauden gainerako arauak bete beharko dira.

Oinarri espezifikoek bestelako erregulazio bat berariaz ezartzen ez badute behintzat, oinarri orokor hauetan ezarritako xedapenak eta baldintzak aplikatuko zaizkie Udalak onartutako dirulaguntza programa guztiei.

Oinarriotan xedatuta ez dagoen guztian honako hauek aplikatuko dira: Lezoko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza, 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretua eta gai honi aplikatu dakizkiokeen indarreko arauak.

4. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina.

Halaber, kontuan izango da 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duena. Honen arabera, 3. artikuluan eta 17., 19.4 eta 23. artikuluetan jasotzen diren printzipio orokorrak eta mandatuak betetzeko eskatuko zaie EAEko botere publikoren batekin kontratuak edo lankidetzaz hitzarmenak sinatzen dituzten entitate pribatuei, EAEko botere publikoen partaidetza dutenei edo botere publikoen laguntzen edo dirulaguntzen onuradun direnei, haien arteko erlazioari dagokion denboran eta gaien. Aipatu dekretuko 3. artikuluan honako printzipioak jasotzen dira, besteak beste:

- Tratu berdintasuna
- Aukera berdintasuna
- Ikuspegi interseksionala txertatzea



Lezoko Unibertsitateko Udala

- Ekintza positiboa
- Sexuaren araberako rola eta estereotipoak ezabatzea
- Emakumeen ahalduntzea
- Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea, artatzea eta desagerraraztea.
- Ordezkaritza orekatua

Horrez gain, aipatu dekretuko 17. eta 23. Artikuluetan, besteen artean, ondorengo mandatu hauek ere jasotzen dira:

-Azterlan, ikerketa, estatistika edo datu bilketetan sexuaren aldagaia sistematikoki sartzea.

-Hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea irudi eta hizkera mota guztietan. Lagungarri gisa Udaleko web orrian eskuragarri dagoen Hizkuntza barneratzaileari buruzko gida ikus daiteke. <https://lezo.eus/eu/berdintasuna/hizkuntza-barneratzailea-bultzatzeko-gida>.

-Dirulaguntzen onuradunek genero-ikuspegia txertatu behar dute euren jardunean eta berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak ezabatzeko neurriak hartuko dituzte.

Lezoko Udalak ez die laguntzarik edo dirulaguntzarik emango sexuan oinarrituta edo diskriminazio anizkoitzeko inguruabarretan oinarrituta diskriminatzen duten jardueri, ez eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoei eta juridikoei ere. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

5. artikulua. Hizkuntz Betebeharrak.

EAEko bi hizkuntza ofizialen erabilerrari dagokion arlo guztietan, bai ahoz, bai idatziz ondorengo arauetan jasotzen dena beteko da:

1. EAEko Estatuaren 6. Artikulua.
2. Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea.
3. Otsailaren 22ko, 19/2024 Dekretuaren 13.artikulua, b) atala.
4. Lezoko Udak 2018ko azaroaren 29ko osoko bilkuran onartutako VI. plangintzaldi (2018-2022) barruko hizkuntz irizpideak

Hizkuntz Irizpideetan jasotzen den bezala, besteen artean ondorengo hauek bete beharrekoak direla gogoratu behar da:

- Dirulaguntza aurreko eta ondorengo tramitazioan: Idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz izateko saiakera egitea (kontuan izanda, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak gaztelaniaz egiteko eskubidea aitortzen diela).



Lezoko Unibertsitateko Udala

- Dirulaguntzaren xede den ekintz(et)an euskara erabiliko dela bermatzea. Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatuko balitz eta hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea, euskaldunen hizkuntza eskubideak ere errespetatu daitezkeen.
- Diruz lagundutako ekintzetan argitaratzen diren eskuorriak, kartelak, iragarkiak, oharrak eta gainerakoak, ahozkoak zein idatzizkoak gutxienez euskaraz egotea eta, kasu horretan, euskarari lehentasuna ematea.
- Jardueraren hedapen-lana eta jarduera bera euskaraz gauzatzen dituzten elkarteak diruz sarituko ditu Udalak.
- Haur eta gazteentzat zuzendutako jarduerak antolatzeko dirulaguntza eskatzen denean, aipatu jarduerak euskaraz izan beharko dute. Jarduera horietan euskara ulertzen ez duen hartzailerik balegobideak jarriko zaizkio jardueraren baitan esandakoak uler ditzan.
- Ezarritako hizkuntza-irizpideak bete ezean, ez da dirulaguntzarik emango.

6. artikulua. Bestelako laguntzak.

Ez dira aintzat hartuko beste udal partida edo deialdietatik dirulaguntza jasotzen duten ekintzak.

II. ONURADUNAK

7. artikulua. Onuradunak.

Dirulaguntza hauen onuradunak honako hauek izan daitezke:

Lezon ekimenak egiten dituzten Lezoko pertsona fisiko zein juridikoak betiere, laguntza horien bidez erabilera publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat gauzatzeko asmoa badute edota helburu publikoren bat lortzeko lanean badihardute.

Halaber, Lezokoak ez diren entitateek ere, eska dezakete dirulaguntza, baldin eta Lezon ekimenen bat burutzen badute, Lezoko herritarrak artatzen badituzte edota udalarentzat interesgarriak direla iritzitako jarduerak baldin badira.

Era berean, ezin izango dute onuradun baldintzarik eskuratu beren jarduerarekin izaera sozial edo pertsonaleko beste edozein diskriminaziorik sustatzen duten elkarteak.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- Udalarekin zorretan ez egotea.
- Pertsona fisikoen kasuan Lezon erroldatuta egotea dirulaguntza eskatzean, eta hala egonizana gutxienez azken urtean edo bi urte metatuak izateak azken 15 urtetan.
- Zerga betebeharretan egunean egotea.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- Gizarte Segurantzarekin zorretan ez egotea.
- Izaera juridikoa duten elkarteek dagokien elkarte erregistroan inskribatuak egon beharko dute.
- Lezoko udalerrian beren egoitza ez duten elkarten kasuan izena emanda egotea dagokien Elkarte Erregistroan.

Deialdi bakoitzerako eranskinean jasotako oinarri espezifikoetan jasotako baldintzak.

III. ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA ETA DOKUMENTAZIOA

8. artikulua. Lekua eta dokumentazioa.

Eskariak aurkeztu daitezke, pertsona fisikoek presentzialki edo telematikoki, eta pertsona juridikoek soilik telematikoki (eskaera entitate juridikoaren lehendakariak edo jabe ez den beste pertsona batek egiten badu, sinatutako ordezkariak agiria aurkeztu beharko du, aurrez aurkeztua ez bada):

- Presentzialki Udaleko Erregistro Nagusian (Gurutze Santuaren plaza, 1).
- Telematikoki, udalaren zerbitzu telematikoetako dirulaguntzak atalean (www.lezo.eus).
- Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Lezoko Udalak, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez edo informazio hori lortzeko gaitutako beste bitarteko baten bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarriz lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Lezoko Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, NISAEn, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- Eskatzailearen edo ordezkariaren nortasun agiria edo agiri baliokidea.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- Foru Ogasunarekin zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- Gizarte Segurantzarekin zorretan ez dagoenaren ziurtagiria.

Hala ere, egiaztatze honi uko egiteko aukera izango du eskatzaileak. Kasu horretan, zerrendatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Lezoko Udalak, ofizioz, egiaztatuko ditu ondorengoak:

- Lezoko Udalarekin egunean egotearen ziurtagiria.
- Eskatera-orrian adierazitako kontu korrontea pertsona juridikoarena dela ziurtatzea.
- Eusko Jaurlaritzako Entitateen dagokion Erregistroan inskribatuta dagoelako egiaztatzea.
- Entitatearen estatutuak.
- Entitatearen zuzendaritza osaketaren egiaztatzea.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Dirulaguntza eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Dirulaguntza eskaera-orri normalizatua. Dirulaguntza deialdiaren arabera eranskin bakoitzean jasotzen dena.
- Identifikazio Fiskaleko Kodea (IFK).
- Eskatera orrian eskatzaileak derrigorrez bere kontu korronte zenbakia adieraziko du. Kontu horretan egingo da dirulaguntzaren ordainketa.
- Dirulaguntza deialdiaren arabera eranskin bakoitzean adierazten den dokumentazio gehigarria.
- Zinpeko aitortpena eskaria orrian, aurkeztutako datu guztiak benetakoak direla ziurtatzen duena.
- Zinpeko aitortpena eskaria orrian DLLOko 25. eta 26. artikuluetan ezarritako baldintzen arabera, dirulaguntzen itzuleragatik zorduna ez izatea ziurtatzen duena. (ED 887/2006-EAO 176-uztailaren 25ekoa).
- Zinpeko aitortpena eskaria orrian 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duena, jasotakoaren kontrako jarduerak antolatu ez, jarrerak izan ez edo kontrako epai ez izatea ziurtatzen duena.

Eskatzaile fisiko edo juridiko batek adierazten badu oinarri hauetan eskatzen diren dokumentuetako batzuk Lezoko udalaren esku daudela eta udalak berak ere hori hala dela badaki, interesatuak ez du dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango.

Dirulaguntza banatzeko oinarriak Lezoko web gunean (<https://www.lezo.eus>) eskuratu ahal izango dira.



IV. EPEAK

9. artikulua. Eskaera aurkezteko epea.

Oinarri arau hauen eranskin moduan agertzen diren oinarri-arau espezifikoetan jasotzen direnak izango dira.

10. artikulua. Dokumentazio osagarria.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, jakinarazi eta hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 artikulua araberako, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela.

V. PROZEDURA

11. artikulua. Ebazteko prozedura.

- a) Arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatu ondoren, txostena egingo du.
- b) Jarraian, Alkate Dekretuaren erabaki bidez emango da dirulaguntzei buruzko behin betiko ebazpena.

12. artikulua. Ebazteko epea.

Eskaerak erabaki eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilekoa izango da, deialdi honetan eskabideak aurkezteko adierazten den epea bukatzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori berariazko erabakirik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ez dela onartu ulertuko da, gerora egin daitekeen ekarpenaren kaltetan izan gabe.

13. artikulua. Zenbatekoak.

Erakunde edo elkarte bakoitzari zenbateko dirulaguntza emango zaion ezartzeko, honako hau kontuan hartuko da:

- Udalaren aurrekontuan xede horretarako aurreikusitako zenbatekoa.
- Aurkeztutako ekintzen edo eskaeren kopurua eta nolakotasuna.

Bestalde, udalak ekintza baterako gastutzat onartutako kopurua baino gastu txikiagoa egiten bada edo ekintza egiten ez bada, dirua itzuli egin beharko da.



Lezoko Unibertsitateko Udala

14. artikulua. Ordainketak.

Oinarri arau hauen eranskin moduan agertzen diren dirulaguntza programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoetan jasotzen dira dirulaguntza hauen ordainketa moduak.

15. artikulua. Bateragarritasuna.

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira bestelako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketa egongo dirulaguntza publikoekin, eta hala gertatuko balitz, dirulaguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko behar izanez gero, pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Lezoko Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

VI. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

16. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

Dirulaguntza emanez gero, oinarri-arau orokor eta espezifikoetan jasotakoez gain, hauek ere entitate onuradunaren betebeharrak dira:

- a) Diruz lagundutako jarduera egitea edota helburuak betetzea.
- b) Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
- c) Lezoko Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta esku-hartzaitzari dagozkion finantza-kontrolako jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.
- d) Eskaera-orrian adierazi ez den beste administrazio edo erakunde publikoei (estatuko nahiz nazioartekoetatik) helburu berbererako eskatutako edo erakundeetatik jasotako beste dirulaguntzarik jasotzen bada, Lezoko udalari horren berri ematea.
- e) Dirulaguntza emateko garaian kontuan hartutako atalen batean aldaketarik gertatuz gero (objektiboa nahiz subjektiboa izan), dirulaguntza eman duen organoa aldaketa horren jakinaren gainean jartzea eta beronen onespina izatea.
- f) Ekintzei lotutako publizitatean Lezoko Udala babesletzat adierazi beharko da, udalaren logoa erantsiz
- g) Dirulaguntza jaso izanagatik jarduera edo zeregina bertan behera edo eskabidean adierazitakotik nabarmen aldatuko balitz, onuradunak jasotako diru kopurua itzultzeko betebeharra izango du.
- h) Oinarri hauetan jasotako beste edozein betebeharrak.
- i) Dirulaguntza gai diren ekintzak bideratzerakoan, hondakinei dagokienez Lezoko Udalean Hiri



Lezoko Unibertsitateko Udala

Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloetan jasotakoak beteko dira.

- j) Lezoko Udalak lagundutako egitasmoetan sortutako euskarriei (paperezkoak zein digitalak) herri intereseko erabilera eman ahal izango zaie.

Udalak edozein momentutan eskatu diezaieke entitate onuradunei betebeharrak hauek betetzen dituztela kreditatu dezaten.

17. artikulua. Ez betetzea.

Oinarri-arau hauetan xedaturiko baldintzak betetzen ez badira dirulaguntzaren berrikusketa egingo da, eta hala dagokionean, deuseztatu, gutxiagotu edota itzularazi azaroaren 38/2003 dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37. eta 52. Artikuluek eta ondorengoek aurreikusten duten eran.

VII. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

18. artikulua. Balorazio irizpideak.

Oinarri arau hauen eranskin moduan agertzen diren oinarri-arau espezifikoetan jasotzen direnak izango dira.

VIII. DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

19. artikulua. Justifikazioa.

Dirulaguntzak justifikatzeko pertsona fisiko edo juridiko onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- a) Egindako jardueraren memorian, diruz lagundutako jarduerak emakumeen eta gizonen egoeran nolako inpaktua izan duen jakiteko, sexuaren arabera banakatuta aurkeztuko dira persona guztiei (jasotzaile edo partehartzaileak, langileak, antolatzaileak eta elkarteko zuzendaritzakideak) buruzko kopuru datuak.
- b) Diruz lagundutako jardueraren sarrera gastuen balantze zehaztua.
- c) Diruz lagundutako jardueraren gastuak osotara justifikatzen dituzten jatorrizko egiaztagiria eta fakturak. Diruz lagundutako jarduerarekin eta datarekin bat egin beharko dute. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztagiriak.

Fakturetan hauxe agertuko da:

- Erakundearen edo/eta elkartearen identifikazioa.
- Hornitzailearen identifikazioa.
- Fakturaren data.
- Kontzeptua.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- d) Udalak dirulaguntza ekintza jakin baterako izendatzen badu, eta urtean zehar hasierako asmoak beste ekintza batekin ordezkatu nahi badira, udalari asmoaren berri eman behar zaio eta honen oniritzia jaso.
- e) Dokumentazio grafikoa edota ikus-entzunezkoa, balego.
- f) Oinarri espezifikoetan jasotako beste edozein egiaztagiri.

IX. INTERPRETAZIOA

Oinarri-arau hauen interpretazioan edota garapenean sor daitezken zalantzak erabakia hartzen duen organoak argituko ditu.

X. ARAUDI OSAGARRIA

20. artikulua. Araudi osagarria.

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Lezoko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena, Lezoko Udalaren Dirulaguntzen 2024-2026 Plan Estrategikoak jasotakoa eta Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen eta garatzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren xedapenak.

Halaber, araudi horietan aintzat hartu ez direnkontueterako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuko dira.

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe biziitzeko Legearen testu bategina onartzen duena; Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, eta Lezoko Udalaren III. Berdintasun Plana.

Indarrean dagoen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Lezoko VI. Plangintzaldia.

Baita ere, aplikagarri da "Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (2013ko abenduaren 24ko EBAO, L 352/1).



Lezoko Unibertsitateko Udala

OINARRI ESPEZIFIKOAK

GIZARTE ZERBITZUEN ALORREAN DIHARDUTEN ELKARTEENTZAKO 2024KO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DUTEN OINARRI ARAU ESPEZIFIKOAK.

Lezoko Udalaren aurrekontuak irabazi asmorik ez duten Gizarte Zerbitzuak arloko elkarte eta entitateei zuzenduriko partidak biltzen ditu.

Gizarte Zerbitzuak eremuan lan egiten duten entitateek dirulaguntzak eskuratu ahal izateko, eta aurrekontuan bildutako ekintzen publizitatea bermatzeko, ondoko oinarriak finkatzen dira:

I. XEDEA

Deialdi honen xedea da 2024. urterako Gizarte eskuhartzearen eremuan ekintzak burutzen dituzten elkarteek zuzendutako dirulaguntzak emateko irizpideak ezartzea. Hau da, gizarte zerbitzuen gaitan, pertsonen, familien eta taldeen autonomia pertsonala eta gizarte integrazioa babestu eta sustatzeko ekintzak burutzen dituzten entitateei zuzenduak.

Ekintza edo egitarau hauek honakoak izango dira:

- Elkarteen jarduera arrunta mantentzea.
- Elkarteen jardueraren sensibilizazio, prestakuntza, informazioa eta zabaltzeko ekintza espezifikoak egitea.
- Elkarteen jardueraren xede diren taldeentzat esku hartzeko programa espezifikoak garatzea.

II. ONURADUNAK

Dirulaguntza jasotzeko aukera izango dute, oinarri orokorretan jasotakoaz gain, irabazi asmorik gabeko ondorengo baldintzak betetzen dituzten Elkarteen:

- a) Gizarte zerbitzuekin edo eta osasunarekin zerikusia duten ekintzak garatzea.
- b) Elkarteen eskuhartzea Gipuzkoako Lurralde historikoaren eremuan garatzea.
- c) Dirua irabaztea xede ez izatea, izaera juridikoa edozein dela ere, elkartea, fundazioa, gizarte ekimenerako kooperatiba edo dirua irabaztea xede ez duen beste edozein, eta helburu publiko edo gizarte interesa betetzea sustatzea.

III. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Oinarri orokorreko 8.artikuluari jasotakoaz gain, eskatzaileak ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Aurkeztutako programa, proiektu edo jardueraren txosten zehaztuta.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- Dirulaguntzaren xede izango den programaren aurrekontua.
- Entitatearen urteko aurrekontua (gastuak eta sarrerak).

Dokumentazio osagarria.

Eskatutako dokumentazioaz gain, Udalak beharrezkoa iruditzen zaion informazio osagarria eskatu ahal izango du aurkeztutako jarduera baloratzeko.

IV. EPEAK

Eskaera aurkezteko epea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emango dira eta egutegiko 10 eguneko epea utziko da eskabideak aurkezteko, argitara ematen den hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

V. PROZEDURA

Zenbatekoak.

Udalak elkarte bakoitzari emango dion dirulaguntza zehazteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Udalak aurrekontuetan zehaztutako kopurua.
- Guztira Elkarte eskatzaileek lortutako puntuazioa.

Ordainketak.

Erabakian zehaztuko da onartutako dirulaguntza ordainketa bakar batean edo zatika ordainduko den, eskatutako dirulaguntzaren ezaugarrien arabera.

VI. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Balorazio irizpideak.

Dirulaguntza ematerakoan, honako arloak kontuan hartuko dira, baldin eta egindako eskarian agertzen badira:

- a) Elkartea Lezokoa izatea. Puntu bat.
- b) Elkarreak bere jarduera Lezon garatzea edo bere zerbitzuekin Lezoko herritarrak artatzea. 2 Puntu
- c) Elkarreak Berdintasun Plana onartuta izatea edo Berdintasunean enpresa kolaboratzailea izatea. Puntu bat.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- d) Elkarateak egiten dituen jarduerak gizarte zailtasunak duten herritarrei zuzenduta egotea eta pertsona, familia edo beste maila bateko hobekuntza ematea. Puntu bat.
- e) Lezoko Gizarte Zerbitzuekin lankidetzatza izatea. Puntu bat.

VII. DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

Justifikazioa.

Gizarte programak garatzeko dirulaguntza jasotzen duten Elkarateek oinarri orokorreko 19. artikuluan zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko dute Udalean 2024ko otsailaren 28a baino lehen.

Elkarateak garatu beharreko oinarrizko lanak egiten dituzten profesionalen soldata gastuak ez dira diruz lagunduko.

Dirulaguntza zuzitzen ez bada, dirua itzuli beharko da.